

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Foru Gobernua Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegoa ezartzeko pausoak ematen hasi da

Antolaketa-unitate bat sortzeko erabakia hartu du haren ezarpena koordinatzeko, kode etiko bat sustatzeko eta aurreko legealdietan egindako kontratazioak berrikusteko

Miércoles, 16 de septiembre de 2015

Nafarroako Gobernua Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegoa ezartzeko pausoak ematen hasi da; hala, antolaketa-unitate bat sortzea erabaki da, eta unitate horrek bulegoaren eraketa sailekin koordinatzeko ardura izango du; horrez gain, kode etiko bat sustatuko du, eta aurreko legealdietan egindako kanpoko enprekin egindako enkargu eta kontratazioak berrikusiko ditu.



Nafarroako Gobernuako bilera bat.

Zeregin horiek egingo dituen unitatea Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren mende egongo da zuzenean, Foru Gobernuako gaurko bilkuran onartutako erabakian aipatzen denez.

Bulegoaren egitekoak

Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegoa sortzea Nafarroako Gobernua osatzeko programa-akordioaren barneko konpromisoetako bat da. Haren zereginak honako hauek dira:

- Kudeaketa publikoan eta bereziki azpiegituretan egindako jarduera garrantzitsuenen kontu-ikuskapena eta berrikuspena, haien eraikuntzari eta ustiapen nahiz mantentzeari dagokionez.

- Gobernu Egoki eta Bateriaezintasunen Kodean egun indarrean dauden legeak gainditzeko Kode Etiko baten proposamena egitea, jokabide desagokiak zehaztu, zehapen-prozedura bat ezarri eta bermeak arautuko dituen diru-laguntzen kontratazio, esleipen eta emakidako epaimahaiak nahiz mahaiak osatzeko orduan. Bulegoa Kode Etiko honi lotuta irekitako espedienteak ireki, bideratu eta ebazteaz ere arduratuko da.

- Ustelkeriaren prebentzioa.

Gainera, programa-akordioaren barnean honako hau mugatzeko aukera sartzen da: funtzio publikoa duten pertsonak egindako lanak sistematikoki kanporatzea enpresak eta profesionalak kontratatuz.

Koordinazio-unitatearen eginkizunak

Bulegoaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua Foru Lege bidez arautuko da. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuaren aburuz, arau hori prestatzen den bitartean, beharrezkoa eta premiazkoa da antolaketa-unitate bat sortzea, eta honako lan hauek egiteko ardura izango du:

- Departamentuen arteko koordinazioa Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegoaren ezarpenari arrakastarako behar besteko bermeekin ekiteko.
- Prestaketa-lanak bultzatzea Kode Etikoaren plangintzarako eta hura lantzeko.
- Aurreko Gobernuek Foru Administrazioak ez diren pertsona edota enpresei oro har egindako kudeaketa- eta kontratazio-enkarquak berrikustea zerbitzu publikoak emateko.